| **IRAKASKUNTZA-GIDA** | 2013/14 | | |
|---|---|---|---|
| **Ikastegia** | 160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola | **Zikl.** | Zehaztugabea |
| **Plana** | GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua | **Ikastaroa** | 3. maila |

## IRAKASGAIA

| | | |
|---|---|---|
| 25953 - Jardute Profesionalerako Sarrera | **ECTS kredituak:** | 6 |

## GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

DESKRIBAPEN LABURRA:
Irakasgaia E modulu barruan kokatzen da: Praktikum eta Gradu Amaierako Lana.
AURREBALDINTZAK: Ikasgai honetan izena-eman ahal izateko "Gizarte Errealitateteen Behatokia" eta "Gizarte Errealitateen Baliabideak" ikasgaiak gaindituak izan behar ditu ikasleak.
IRAKASGAI-GILTZA: 4.mailako praktikak egin ahal izateko "Jardute profesionalaren sarrera" gainditua izan beharko du ikasleak.

Ikasgai honetan gizarte langintzaren jardute profesionalaren ezagutzara lehengo hurbiltzeari aurre egingo diogu, babes-sozialeko sistema markutik eta biztanleria-sektore nagusietatik abiatuta. Hain zuzen ere, esku-hartze eremu ezberdinetan gizarte langileek dituzten funtzio eta betetze profesionalerako erabiltzen dituzten tresnen ezagutzara. Halaber, entzute aktibo eta komunikazio eraginkorrean kokatuta komunikazio-trebetasunak landuko dira. Honetaz gain, bizibidearen identitateaz eta aspektu epistemologikoetan sakonduko da.

GAITASUNAK:
1. Gizarte langintzaren objektuari buruzko hausnarketa egitea, perspektiba filosofiko desberdinekin lotuz.
2. Biztanleria-sektore eta laneko testuinguru soziala kontuan hartuz, gizarte langilearen rola eta funtzioak identifikatzea.
3. Identitate, rol eta funtzio profesionalen inguruan hausnartzea, beste profil profesionalekin ezaugarri komun eta bereizleak aztertuz.
4. Gizarte langileek erabiltzen dituzten tresna eta euskarri dokumental ohikoenak erabiltzea: elkarrizketa-erregistroa, txosten soziala, proiektu sozialak, eta abar.
5. Betetze profesionalerako ezagutza erabilgarriak eskuratzea.
6. Pertsona adituekin lan-saio planifikatzen eta dinamizatzen ikastea.
7. Entzute aktibo eta komunikazio eraginkorrerako trebetasunak lortzea. Harreman pertsonal eta profesionalak sortzeko eta lantaldean aritzeko trebetasunak eskuratzea.

IKASKETA-EMAITZAK:
Ikaslea gai izango da:
- Lanpostu baten azterketan, ikekerta eta esku-hartze objektuak gizarte langintzako helburu eta metodologiekin koherentziaz identifikatzen.
- Esku-hartze testuingurak, funtzio profesionalak eta identitatearen bestelako elementuak beste bizibideetatik bereizten eta harremantzen.
- Lan-talde eta adituekin saioak planifikatzen eta dinamizatzen.
- Gizarte langintzako profesionalei sakonezko elkarrizketak pretatzen eta gauzatzen.
- Poster zientifikoak diseinatzen eta ekoizten.
- Normatiba eta irizpide teknikoei jarraituz banakako eta taldeko txostenak laboratzea.

## GAI ZERRENDA

MODULUAK:
0. Jardute profesionalerako sarrera.
1. Epistemologia eta gizarte langintza.
2. Esku-hartze testuinguruak.
3. Etika eta identitate profesionala.

Zeharka genero perspektiba, landa-eremua, etika profesionala eta ahozko eta idatzizko komunikazio trebetasunak landuko dira, azken hauek, alde batetik entzute aktiboan eta komunikazio eraginkorrean, eta bestetik, IKTen erabilpenean oinarrituta.

Hau guztia, arduratzen diren populazio-sektoreak eta talde kalteberetako sektore nagusiei dagokienez, eta babes sozialeko sistema desberdinetan kokatuz.

Biztanleria-sektore eta kolektibo kaleteberak:
1. Familia, haurtzaroa eta gaztaroa
2. Adinekoak
3. Bazterketa soziala arriskuan dauden pertsonak

4. Ezgaitasunak eta gaixo kronikodunak
5. Etorkinak
6. Talde etnikoak
7. Menpekotasunak dituztenak
8. Preso eta preso-ohiak
9. Bortizkeria jasotzen duten emakumeak
10. Gutxiagotutako identitate sexualak

Babes-sistemak:
1. Gizarte zerbitzuak
2. Osasun sistema
3. Hezkuntza
4. Diru-sarrera bermaketa
5. Etxebizitza
6. Lana eta formazioa
7. Justizia

## IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasgelako eskola-orduak | | 60 | | | | | | | |
| Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | | 90 | | | | | | | |

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

**Argibideak:**

• Irakaskuntza mota: Mintegia
Mintegiek esparru profesionalarekin (arazoak konpontzeko ezagutza aplikazioa) loturiko gaitasunak garatzen dituzte. Halaber, instrumental eta komunikazio gaitasunak, besteak beste, informazio erabilpenean eragikortasuna eta ahozko eta idatzizko adierazpenak hobetzen laguntzen dute. Guzti hori aurrera eramateko, eztabaida taldeak (bost bat ikasle osatuak), bideo-saioak eta ariketa praktikoak egongo dira. Banakako ardura eta erabakiak hartzen bultzatuko da.

o Irakaskuntza presentzialaren orduak: 60 ordu.
o Ikaslearen ekintza ez presentziala, hots, lan autonomoa: 90 ordu.

• Gauzatuko diren jarduera-hezigarriak, ikasgaiak landu nahi dituen gaitasunak garatzeko:

o Inkesta linean: hasierako abiapuntu eta hausnarketaren itxiera gisa.
o Testuen irakurketa eta banakako hausnarketa, moduluen saioei aurre egin baino lehen .
o Taldeko gogoetak eta eztabaidak gelan, materiala osagarriaz lagundurik .
o Jardute profesionalaren analisia, lanpostu azterketaren bitartez:
- Gizarte langile bati elkarrizketa.
- World-kafe: 4. Maialako praktiketan dauden ikaslekin.
o Mahai-ingurua: profesionalak eta ikasleria. Posterren aurkezpena.
o Azkeneko txostenaren lanketa.

• Bestalde oso garrantzitsutzat jotzen da ikaslearen lan autonomoa, beste trebakuntza ekintzekin batera gaitasunak eskuratzeko beharrezkoa delako. Analisia eta sintesia, arrazoibide kritikoa, informazioaren kudeaketa eta komunikaziorako gaitasunak eskuratzeko ahalbidetzen du. Kreatibitatea bultzatzen du, ikasketa egoeran ezagutzak aplikatzen laguntzen du eta informazio eta komunikatzeko teknologiak erabiltzeko aukera ekartzen du.

## EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

**Argibideak:**

Oro har ebaluazio jarraia egingo zaie ikaslei.
Eskolara etortzeko baimendutako zergatiak justifikatzen baditu ikasleak amaierako ebaluazioa egiteko aukera izando du. Kasu honetan, ikasgaiaren izaera eta ezagutzak direla eta, praktika ezberdinak egin dituela frogatu behar du. Horrela

azterketa azken frogarekin batera banakako lan praktiko bat aurkeztuko du.

a) EBALUAZIO JARRAIA

Derrigorrezko baldintzak ebaluazio jarrairi aurre egiteko:
* Eskolara etortzearen baldintza (asistentziaren %80kin gutxienez beteko da).
* Modulu guztien irakurgaien banakako erregistroa (eskolako saioei aurre egin baino lehen moodle plataformara igoko direnak).
Ikasgaiaren kalifikazioarako ondoko lanak hartuko dira: moduluen taldeko lau lan, taldeko posterra eta banakako jardute profesionalari buruzko amaierako txostena.
Beharrezkoa da atal guztiak gainditzea, batezbestekoa egiteko.

FROGA MOTAK:
Taldeko lana: ikasgaiaren moduluei buruzko hausnarketa (%40).
Taldeko lana: jardute profesionalari buruzko poster (%20).
Banakako txostena: jardute profesionalari buruzko gogoeta (%40).

b) AMAIERAKO EBALUAZIOA

Oinarrizko bibliografian oinarritutako azterketa teoriko-praktikoa (%50) eta moduluen inguruko hausnarketa eta analisi lana (%50).
Hala azterketa nola txostena gainditu behar dira batezbestekoa egiteko.

FROGA MOTAK:
Idatzizko azterketa (%50).
Banakako txostena irakasgaiaren moduluen inguruan (%50).

GARRANTZITSUA: Jardute profesionalerako sarrera ikasgaia nahitaez gainditu beharko da 4.mailan kanpoko praktikak egin ahal izateko, hots, practicum ikasgaian matrikula egiteko beharrezkoa izango da ikasgai hau gainditua izatea.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Moodle Plataforma
A. Banakako irakurketen erregistro eredua.
B. Taldeko moduluen lana jasotzeko eredua.
C. Amaierako txostena gauzatzeko pautak.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

0. Modulua: Jardute profesionalerako sarrera
• ZAMANILLO, Teresa (2009). “Invitación a un trabajo social reflexivo”, XI Congreso Estatal de Trabajo Social: Trabajo Social, sentido y sentidos. Zaragoza. Actas. Eskuragarri: http://www.colegiotstenerife.org/ficheros/File/Congreso-Zaragoza/01_Teresa_Zamanillo.pdf

1. Modulua: Ikerketarako eta esku-hartzeko objektuak eta ezagutza-paradigmak
• ARIÑO ALTUNA Miren; BERASALUZE CORREA Ainhoa (2012): “El limbo de la epistemología”. Non: Sobremonte, E.: Epistemología, teoría y modelos de intervención en Trabajo Social. Reflexión sobre la construcción disciplinar en España. Deusto Digital, Maior Serie, 13. bol.
• ZAMANILLO, Teresa (1999): “Apuntes sobre el objeto de trabajo social”. Cuadernos deTrabajo Social, 12, 12-32.

2. Modulua: Esku-hartze testuinguruak
• LIMA, Ana Isabel (2012): “Trabajo Social, nuevos contextos y nuevos compromisos”. Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar, 1.
• DIAZ Eduardo. (2009). “Los ámbitos profesionales del Trabajo Social”. Non: Fernandez Tomas eta Alemán Carmen: Introducción al trabajo social. Madril. Alianza Editorial.

3. Modulua: Profil profesionala eta erabilitako tresnak eta euskarri dokumentalak
• PASTOR SELLER, Enrique (2013): “Situación actual del trabajo social en España: un estudio necesario en España”, Servicios Sociales y Política Social, 103, 111-119.
• NAVARRO, Silvia (2011): “Tan lejos, tan cerca del Trabajo Social, todo depende…”. Non: IV Jornada de trabajo social: Más allá de la dependencia. Vitoria-Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, 57-76.

4. Modulua: Gizarte langileen identitatea
• BERASALUZE, Ainhoa (2011): “Dependentzia eta autonomia Gizarte Langintzan: lehena, oraina eta geroa”, in Gizarte Langintzako IV. Jardunaldia: Mendekotasunetik Harantz. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 43-56. Eskuragarri: http://www.gizarte-langintza.ehu.es/p260-content/es/contenidos/informacion/jornadas_congresos_cursos/es_jornadas/adjuntos/Publicacion.pdf
• BLANCO, Mª Luisa (2013): “La construcción compartida del Paradigma del Trabajo Social y los perfiles (retos) de la identidad profesional en el SXXI”. III Jornadas de Trabajo Social: Compartiendo retos, construyendo futuro. Tenerife.

**Gehiago sakontzeko bibliografia**

TREVITHICK, Pamela (2002): Habilidades de Comunicación en intervención social. Madrid. Narcia.

1 Moduloa: Ikerketarako eta esku-hartzeko objektuak eta ezaguera-paradigmak
TOLEDO, Ulices, (2004): ¿Una epistemología del Trabajo Social?. Cinta de Moebio, Diciembre, Nº 21, Universidad de Chile, Santiago.
VÁZQUEZ AGUADO Octavio (1988): Pensar la epistemología del trabajo social. Alternativas: cuadernos de trabajo social, nº 6, págs. 269-286

2 Moduloa: Esku-hartze testuinguruak
CARBALLEDA, Alfredo (2002): La intervención en lo social. Exclusión e integración en los nuevos escenarios sociales. Paidos. Buenos Aires.
COLOM MASFRET, Dolors (2011): El trabajo social sanitario. Los procedimientos, los protocolos y los procesos. UOC. Universidad abierta de Catalunya.
MOIX Manuel. (2006): La práctica del trabajo social. Madrid: Síntesis.

3 Modulua: Profil profesionala eta erabilitako tresnak eta euskarri dokumental profesionalak.
C.G.T.S. (2012): Código deontológico de trabajo social
DE LA RED, Natividad (1993): Aproximaciones al trabajo social. Madrid. Consejo General del Trabajo Social.
F.I.T.S. (2004): Código de ética de la F.I.T.S..
KRUSE, H. (1976): Cuestiones operativas del Servicio Social. Buenos Aires. Humanitas.

4 Modulua: Gizarte langileen identitatea
ARIÑO, Miren (2009). “Nuestra identidad profesional como proceso dinámico y relato coral”, en XI Congreso Estatal de Trabajo Social: Trabajo Social, sentido y sentidos. Zaragoza. Actas.
BARBERO, Josep Manuel y otros (2007): La identidad inquieta de los trabajadores sociales. Barcelona. Colegio Oficial de Diplomados/as en Trabajo Social de Cataluña.
BERASALUZE, Ainhoa, BERRIO-OTXOA, Kontxesi (2008): Gizarte langintzaren jardute profesionala gaur egun. Arabako, Gizkaiko eta Gipuzkoako Gizarte Langintza Diplomadunen Elkargo Ofiziala.

**Aldizkariak**

**Interneteko helbide interesgarriak**